

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko uztailaren 5a / 503. zenbakia

hiru

bi

bat...

jazz

Udako Gauak
egitarauak jazz eta
zinema ekarriko
dizkigu uztailean eta
abuztuan. Lehen
kontzertua gaur,
Espoloian, 22:30ean:
Delicatessen

GAZTETXEA: OBRA PROIEKTUA UDALEAN AURKEZTUTA/5 • BETI-BUSTI: ESPAINIAKO TXAPELKETARA/10



Jocavi
Guitare
Elena Miró
Elisa Rivero
Lacoste
Peyton
Lee
Seaport

0%30
beherapenak

Bidekurutzeta 18 • Tel. 943 76 72 67 • Faxe. 943 76 29 03



San Roke Auzoa 1
ELGOIBAR
Tel. 943 744 132
Faxe 943 744 153
ingenieria@fmh.es
www.fmh.es

2002/2003 IKASTURTEA

Makina Erremintaren Institutuak aukera ezin hobea eskaintzen dizu:

TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA

- ✦ **Enpresarekin lanean** garatutako lanbide proiektua.
- ✦ **Lan-kontratua** prestakuntzaren lehen egunetik.
- ✦ **Emaitza erakargarriak: gehiengoak lanean** dihardu eta %25ek zuzendaritzako ardurak daramatzate.

BILERA INFORMATIBOA

- UZTAILAREN 10ean, asteazkenean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera-baldintzak azaltzeko: 18:30ean Makina Erremintaren Institutuko (IMHko) instalazioak bisitatuko ditugu eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

- UZTAILAREN 24ra arte matrikulazio epea zabalik.



cesi aquitaine
poitou-charentes



ATREBENTZIA EZ PADA / Faltan igartzen dozu igerilekuetako tabernia?



IÑAKI EGUREN
68 urte



PELLO MUXIKA
15 urte



IGOITZ GABILONDO
19 urte



ELISA MAYORA
68 urte



CRES SAN MARTÍN
76 urte



JAIONE LOITI
31 urte

Tabernia zabalik egotia nahixago dot. Bai igerilekuetara juteko, bai futbola ikustera, ba, tabernia gustora hartzen da. Neuk, behintzat, bai, batez be, futbolerako.

Nik tabernia nahixago dot. Jarri dittuen makiñak oso karuak die. Igerilekutik kanpora urtetzen gara gaurak erostera. Kalian prezio erdixan-edo erosten doguz freskagarriak-eta.


Nere ustez, tabernia makiñak baiño askoz hobeto dago. Taberniak beste giro bat ipintzen dau. Han terrazan jarri eta... Makiñatik zeozer etara eta gero... Ez da berdiña.

Ni ez naiz egon igerilekuetan. Baiña esan doste taberniakin hobeto zeguala. Itxuria, diruak bota makiñara eta batzutan ez ei dittu bueltak ondo emoten. Problema batzuk, itxuria, badare.

Ez dakit, ni ez naiz igerilekuetara jutun-eta. Dana dala, pentsatzen dot makiñak erosuak izango diela, baiña taberniak emoten daben zerbitzua osuagoa pentsatzen jat.

Azkenaldixan ez naiz askotan jutun, baiña pentsatzen jat tabernak emon leiken zerbitzua osuagoa izango dala beti. Makiñak azkarraguak die, baiña zerbitzua osuagoa taberniak dauka.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK SAN MARTZIAL San Martzialen egoera kaskarrak kezaketen oharra bidali digu irakurle batek aste honetan. Batez ere, zoruan dauden zuloek kezaketen da. Domekan, dantzari batek baino gehiagok orkatila bihurritu zuela aipatzen du. Toki ederra izateaz gain, herri-tarrondako esanguratsua ere badela adierazten du, eta gehiago zaintzea komeniko litzatekeela dio. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 6

KIROLA / 11

KULTURA / 12

Uraren hitzarmena

Batasunak ur zerbitzuaren esku aldatetaren gaineko iritzia eman du prentsaurrekoan.

Leire Lasa gimnasta

Leire Lasa gimnasta bergararrak Espainiako Txapelketan hartuko du parte aste bukaeran.

Gaur, lehen jazz emanaldia

Delicatessen taldeak emango dio hasiera *Udako gauak* egitarauari. Espoloian, 22:30ean.

IRAKURLEAK MINTZO

XABIER OREGI 'PANTI', BISITARIK GABE

Ekainaren 17an Xabier Oregi *Panti* Euskal preso politikoa bisitatzera joan ziren senideek ezin izan zuten hura ikusi. 800 kilometro egin zituzten *Panti* ikusteko, eta baita ordu eta erdi itxaron ere.

Haren senideek kartzelako "Jefe de servicios" delakoarekin hitz egitea eskatu zuten arren, ezezkoa eman zieten.

Era berean, *Panti*-k ez zuen aldaketa horren berririk jaso eta senideen zain egon zen, ardurata.

BERGARAKO ETXERAT

BESTE EKESANA

“ Alderdien legearen aurka gaude, uste baitugu ez dela beharrezkoa, egun badagoelako nahikoa legeria alderdi bat ilegalizatzeko, baldin eta frogatzen bada talde hori ETArekin lotuta dagoela. Horrez gain, ideiak jazarzen ditu eta bihar gu geu ere legez kanpo utzi gaitzakete Espainiako Konstituzioaren aldaketaren aldekoak garelako. Lege honek ez du terrorismoarekin amaituko, aurkakoa baizik. Baina Batasunak badu erantzukizun handi bat gertatu ahal zaionaz, eta, gainera, ezin dugu ahaztu ETaren jarduna etikoki babestu egiten duela.

ISABEL SALUD
'Euskaldunon Egunkaria' / 02-06-27

BERAIEK DIÑO / Ainhoa Agirreazaldegia



Bizitzaren rupertoriotik

Ruperzalea naiz oso. Berantiarra, hain ezaguna ez zen garaitik zaleak direnen ustetan. *Xamurragoa zen orduan*. Ez diét erantzuten. Berantiartasunaren lotsa ez zait lotsagarri. Edo guztiok ezagutu dituzue zuen musikari, zine zuzendari eta idazle maiteenak hamabost urterekin? *Egin kontu*.

Badu Ruperrek ahotan askotan hartu duen eta niri gero eta maitagarriagoa zaidan esaera bat. "Ondo-ondo ibili, gitxi gastatu eta bueltak amari". Ez dakit esamoldea Euskal Herri osoan erabiltzen den. Guk umetatik entzun dugu, baina niri orain-txe hasi zait gustatzen. *Badoa denbora*.

Ondo-ondo ibili. Nago ez ote den zentzua galtzen ari. Garai batean, konpartitza zen ondo ibiltzea. Elkarrekin trago batzuk hartu, barre egin, eztabaidatu, kontzertuak entzun, salto egin, oihu egin... Elkarrekin. Lagunartean. Komunikatuz. Eta etxera

irripartsu itzuli. Ez dakit zer den ondo ibiltzea, hain barne-munduraturuta dagoen gazte belaunaldi berriarentzako. *37 galdera mugaz bestalde dudak kontaktu bakarrari*.

Gitxi gastau. Ez daukat hitzik. Dena da kontsumoa. Izugarria. Neurritz kanpokoak. *Nahia ta dagoena*.

Bueltak amari. Hasteko, eduki egin behar bueltak, inori itzultzeko. Baina edukita ere, norberarentzat gordetzen dira. Zoritxarrez, gehienoi ez zaigu tokatu sei anai-arrebako familietan hazterik. Iruditzen

zait ez dugula beharra ezagutu, ez digutela ezagutarazi. Eta geure buruarengan bakarrik pentsatzeaz gain, egoeraz eta pertsoenez baliatzen garela. *Erruduna*.

Ni bi belaunaldiren artean nago. Horregatik zait gero eta maitagarriagoa. Zaharberritzen ari ez den belaunaldi baten berri ematen digula iruditzen zaidalako. *Herdoilarena*, ezin genezake gainditu? *Ala berandu dabilta?*

“Ondo-ondo ibili. Nago ez ote den zentzua galtzen ari. Garai batean, konpartitza zen ondo ibiltzea”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 5**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 19 63
- ZAPATUA, 6**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- DOMEKA, 7**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 8**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- MARTITZENA, 9**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 10**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUENA, 11**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 19 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuaren etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---------------------|---------------------|
| Santa Marina | Domekak: 10:30. |
| | Labegarieta |
| | Domekak: 11:00. |
| | San Lorentzo |
| | Zapatuak: |
| | Lanegunak: 19:15. |
| San Pedro | 20:00. |
| | Angiozar |
| | Domekak: |
| | 09:30, 12:30. |
| | Zapatuak eta |
| | lanegunak: 19:00. |
| Sierbak | Zaharrak |
| | Lanegunak: 9:00. |
| Osintxu | Zapatuak: 11:00. |
| | Mizpirualde |
| | Lanegunak: 11:45. |
| | Zapatuak: 17:30. |
| Elosu | Antzuola |
| | Domekak: 10:30. |
| Ubera | Domekak: |
| | 09:00, 11:30. |
| | Zapatuak eta |
| | lanegunak: 19:30. |
| San Juan | Uzarraga |
| | Domekak: 11:00. |
| Elorregi | Domekak: 10:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

'BIXKAI'-REN ONGIETORRI AFARIA
Inaki Arietaleanizbeaskoa *Bixkai*-ren omenezko ongietorri afaria izango da zapatuan, hilaren 6an, San Martin plazan, 21:00etan. Txartelak Arrano, Kortazar edo Pol-Pol tabernetan eskura daitezke.

ARGAZKI ERAKUSKETA
Ikurrinaren legalizazioko argazkiak ikusgai izango dira kultura etxean domekara arte (uztailak 7).

ANTZERKIA ZAPATUAN
Oihulari Klown taldearen *Otiacoh* kale antzerkia bihar, hilak 6, San Martin plazan, 22:30ean.

TXERNOBILEN ALDEKO KONTZERTUA
Gabero abesbatza, Musika Eskolako Ganbara taldea (Maite Aurrekoetxearen zuzendaritzapean) eta kantu ikasleak eta Bergarako Orfeoiairen kontzertua hilaren 12an (egubakoitza) Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan. Dirua Txernobile-ra zuzenduko dute.

MALCOM SCARPA & THE HOKUM LADIES HILAREN 12AN
Malcom Scarpa & The Hokum Ladies jazz taldearen emanaldia uztailaren 12an (egubakoitza) Espoioian, 22:30ean.

JARDUNENAGENDA

JARDUN ELKARTEAK BEGIRALEAK BEHAR DITU
Jardunek 2002-03 ikasturtean aisialdi proiektuak aurrera eramateko begiraleak behar ditu. Interesatuek curriculumak bidal dezakete 103 posta-kutxatilara. Argibide gehiago Jardunek Errotalden duen bulegoan edo 943 76 08 19 eta 943 76 36 61 zembakietan.

URBANOENORDUTEGIA


San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okIndegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Kilometroak 91 jaiak 41 milioi pezeta etekinetan

Antolatzaileek aditzera eman zuten, 1991ko urriaren 6an Bergaran ospatutako Kilometroak 91 jaiak 41 milioi pezeta etekinak izan zituen. Bildutakoaren %60 Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastolek eraman zuten eta gainerako %40 Ikastolen Federakundeak jaso zuen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Irabazteille"



Irabazlea.
-Zeintzuk izan die partiduko irabazteillak?

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Zapatua, 29 **10 °C**

MAXIMOA
Eguaztena, 26 **28 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **14,4 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 26	28 °C	12 °C	3,7 l/m ²
Eguena, 27	23 °C	15 °C	0,3 l/m ²
Egubakoitza, 28	19 °C	14 °C	0,4 l/m ²
Zapatua, 29	17 °C	10 °C	9,2 l/m ²
Domeka, 30	19 °C	14 °C	- l/m ²
Astelehena, 1	27 °C	13 °C	0,8 l/m ²
Martitzena, 2	21 °C	14 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOFILMAK

'INFIEL'

ZUZENDARIA: ADRIAN LYNE. **AKTOREAK:** RICHARD GERE, DIANE LANE, OLIVIER MARTINEZ.

HARIA. Edward gizon zorionsua da eta Connie-rekin ezkondu dago. Connie-k gazte frantses bat ezagutzean, gauzak okertuko zaizkio. Pasiozko harreman baten murgilduko da Connie.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 22:30ean; domekan 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNUAZIOA: ● ● ● ● ●



ETXE PARE-BILINTX LIBRYDENDA



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12. 943 76 40 50 BERGARA

GAZTETXEA/ Proiektua gauzatu ondoren, kartzela zaharrak eta gaztetxeak araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak beteko dituzte

Gaztetxea egokitzeko proiektua Udalean da eta lanak lehenbailehen esleitu nahi dituzte

MONIKA BELASTEGI

Aste honetan aurkeztu du Iñaki Berasategi arkitektoak gaztetxea berritu eta egokitzeko proiektua Udalean. Kartzela zaharra eta kartzelariaren etxea hartzen ditu kontuan. Lehena ekitaldietarako erabiliko da; bigarrenean taberna, gelak eta Txapa Irratia egongo dira.

Bi zati ditu Iñaki Berasategi arkitektoak Udalean gaztetxearen berritze eta egokitzearen gainean aurkeztutako proiektuak.

Batetik kartzela zaharra hartzen du kontuan. Lanak egiten dituzten unetik aurrera areto gisa erabiliko da, antzerki, kontzertu eta antzerako ekitaldietarako areto, hain zuzen ere. Ziegei dagokienez, erabilera anitzeko txoko izango dira. Bestalde, gaur egun aretoan dauden komunak kendu egingo dituzte, berogailu sistema ere aldatu egingo dute (korredorearen azpitik joango da) eta eskenatokia gaur egun bezala geratuko da. Lan horiek guztiek, kartzela zaharra emanaldietarako areto gisa erabiltzeko baldintza guztiak bermatu egingo ditu.

KARTZELARIAREN ETXEAN TABERNA, HAINBAT GELA ETA TXAPA IRRATIA

Kartzelariaren etxeari dagokionez, sarrera nagusiko atea pixka bat mugituko dute, eta garai batean zegoen bezala ipini, hau da, gai-



Gaztetxera heltzeko malda bat eraikiko dute, eta Irazabal kaletik gaztetxe aurreko zabalguneraino joango da.

nean duen leihoarekin lerrotuta. Behe solairuan taberna egongo da, bere alboan lasai egoteko tokiarekin, komunak, eta goiko solairuetara igotzeko eskailera eta igogailua.

Lehenengo pisuan komun gehiago egingo dituzte, beheko solairuko gainean, eta erabilera anitzeko hainbat gela eta bulego egongo dira. Azkenik, ganbaran, Txapa Irratia jarriko dute.

Gaztetxea berritu eta egokitzeko lanek bi eraikinen egitura mantendu baina gogortu egingo dute eta distribuzioari dagokionez ere mantendu egingo dute ia osotasunean.

Horrez guztiaz gainera, elbarriendako malda ere egingo dute Irazabal kaletik gaztetxeraino, bai Irazabaldik, baita Oxirondo plazatik ere eskailerak daude-eta gaztetxera heldu ahal izateko.

LANAK LEHENBAILEHEN ESLEITU NAHI DITU UDALAK

Esan bezala proiektua aste honetan aurkeztu du arkitektoak Udalean, eta baliteke Udal ardura-dunek aztertu ondoren aldaketaren bat izatea. Dena den, bien bitartean lanak esleitzeko baldintzak prestatzen ari dira, lehenbailehen kaleratu eta konponketa lanei ekiteko.

Aurrekontuari dagokionez, 420.700 euro ingurukoa da (70 bat milioi pezeta). Aurtengo aurrekontuan, proiektu horretarako antzeko kopurua onartu zuten.

Kartzela zaharra emanaldietarako areto gisa erabiltzeko egokituko dute

Kartzelariaren etxean taberna, erabilera askotariko gelak eta Txapa Irratia egongo dira

Udala lanak esleitzeko baldintza plegua prestatzen ari da, lanak ahalik eta azkarren hasteko

Mayc, lehena ISO 9001 ziurtagiri berria eskuratzen

MONIKA BELASTEGI

Mayc-eko Gias Servicek, hau da, laguntza teknikoko zerbitzuak, ISO 9001 ziurtagiria jaso du maiatzean AENORren eskutik; ziurtagiriaren 2000 bertsioan, hain justu. Gias Service da Estatuan bertsio berriaren ziurtagiria eskuratu duen lehen laguntza teknikoko zerbitzua.

MONIKA BELASTEGI

Gias Servicek eskaintzen duen laguntza teknikoko zerbitzua taldeko marka guztietara zabalitzen da (Candy, Otsein Hoover, Hoover, Rosieres eta Iverna). Eta ez da Bergarako lantegira mugatzen; Estatu osoan eta Portugalen ere eskaintzen du laguntza teknikoko zerbitzua.

Duela hiru urte, 1999 urte amaiera aldera, gutxi gorabehera, ekin zioten ISO 9001 ziurtagiria lortzeko bideari, eta maiatzaren 13an eskuratu zuten. Gero eta lantegi gehiago dira ISO 9001 ziur-

tagiria eskuratzen ari direnak; edozelan ere, Gias Servicek lortutakoak badu berezitasun bat: 2000 bertsio berriaren eskuratu dute ziurtagiria.

ESTATUAN LEHENENGOAK


Gias Serviceko arduradunen esanetan, 2000 bertsioa aurrekoa baino zorrotzagoa da; prozesuan organizatuago egon beharra dauka enpresak, bezeroaren zehaztapenak kontuan hartzeri behar-tzen du, hobekuntza sistema bat ere ezarrita eduki beharra dauka...

Hori guztia bete du Gias Servicek, eta, arduradunen esanetan, Estatuan bere arloko aurrekoa izan da, gainera, ISO 9001 ziurtagiria eskuratzen 2000 bertsioan. Europa mailan ere lehenengotarikoa dela gehitu dute.

Gias Serviceko lantaldea hogeita hamar lagun inguruk osatzen dute. Duela gutxi, ziurtagiria lortu izana ospatzeko, txangoa egin zuten. Besteak beste, Chillida Leku ikustera joan ziren.



Gias Serviceko lantaldea, ziurtagiria ospatzeko Chillida Lekura egindako bisitan.



MONIKA BELASTEGI

Zalantza eta galdera ugari planteatu zituzten Batasuneko kideek; euren esanetan erantzun barik geratu direnak.

UR ZERBITZUA/ Herrian izango duen eragina ez dela neurtu esan du plantoaren ondoren

Batasunak dio ez dela behar beste aztertu uraren akordioa

MONIKA BELASTEGI

Batasuneko Udal taldeak Udaleko ur zerbitzua Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren esku uzteko hitzarmenaren gainean daukan iritzia eman zuen martitzenean prentsurrekoan. Euren ustez, hitzarmenak eragingo dituen ondorioak ez dira behar den moduan aztertu.

Erantzunik gabeko zalantza eta galdera asko ditu hitzarmenak, Batasunako zinegotziek martitzenean prentsurrekoan adierazi zuten.

Joan den asteleheneko osoko bilkuran onartu zuten orain arte Udalak emandako ur zerbitzua aurrerantzean Gipuzkoako Ur Kontsorzioak kudeatzeko hitzarmena. EAJ-EA eta PSE-EE alderdien oniritziarekin egin zuen aurrera. Batasunak, planto instituzionala zela eta, ez zuen parte hartu. Dena dela, plantoaren

berri eman zuten; baita ur zerbitzuaren gaia mahai gainean uzteko eskatu ere: "Hitzarmena behar bezala aztertu gabe dagoelako eta zalantzak dituelako".

FINANTZAKETA ETA KALITATEA

Mikel Eguren Batasunako zinegotziak esan zuenez, "urtebete darama udal gobernuak gaiarekin bueltaka eta denbora honetan ez da aukerarik izan hitzarmenak eragingo dituen ondorioak behar bezala aztertzeke, ez finantzei dagokienez, ezta aldatzek zerbitzuaren kalitatean izango duten eraginari buruz ere, nahiz eta hainbat batzorde eta bilkuretan eztabaida pizten saiatu garen. Urtarrilean kontu-hartzaileak egindako txosten ekonomikoa aztertuta, hainbat zalantza sortu zitzaizkigun. Batetik txostena ondo aztertzea eskatu genuen, eta, bestetik, zerbitzuaren kalitatearen gaineko txosten bat egitea. Ez dute kontuan hartu".

UR IHESAK: SALDU DEN ARGUDIOA

Hitzarmena onartzeko gehien "saldu" den argudioa da Egurenen esanetan "kontsorzioak hartu duen konpromisoa ur ihesak murrizteko". Gaur egun, ur ihesak %43 dira eta Kontsorzioak %25era jaisteko konpromisoa hartu du. Baina hori ez da zuzena Egurenek esan zuenez, "%43 horren barruan Udalak kontsumitzen duen eta neurtzen ez den ura dagoelako. Hortaz, nola dakiugu ihes moduan kontabilizatutako ur hori zenbat den?".

Beste zalantza batzuen artean, langileen egoera ere aipatu zuten. Orain arte bost langilek, administrari batek eta teknikari batek jardun duten ur zerbitzuan. "Orain, horietako hiru langilek Kontsorzioarendako egingo dute lan eta bi Udaleko brigadara pasatuko dira. Baina gainerakoekin zer gertatuko den zalantza dago. Bestalde, orain arte 5ek egin duten lana 3k zelan egingo dute?".

LABUR

Jesus Maria Hervas Bergarako gaztea hil zen aurreko domekan, auto istripuan

Joan den domekan, Jesus Maria Hervas Rodríguez 22 urteko Bergarako gaztea hil zen, auto istripuan. Ezbeharra 08:30 aldera izan zen, Elorregiko bidegurutzetik oso hurbil. Badirudi Jesus Maria zihoan autoa bere bidetik irteten eta furgoneta baten kontra jo zuela. Gazteak kolpearen ondorioz hil zen, eta harekin batera zihozten hiru lagunak erietxera eraman zituzten; hiruretako bat, gainera, larri zaurituta. Jesus Maria Hervasen aldeko hileta elizkizuna astelehenean izan zen Santa Marina parrokiaren.

Uztailaren 22an itxiko dute Santa Marina, elizan zaharberritze lanak egiteko

Uztailaren 22an itxiko dute Santa Marina parrokiaren zaharberritze lanei ekiteko, eta martxora arte halaxe egongo da, seguruenik. Bien bitartean, meza entzuteko aukera egongo da San Pedro parrokiaren eta Sierbetako kaperan.

Eliza barruko aldetik eta kanpoko aldetik berrituko dute, eta horrez gain, argiztapen sistema, megafonia eta berogailu sistema ere aldatu egingo dituzte. Eliza barruko irudi eta margoak ere garbitu egingo dituzte. Eguenean hasi ziren margolanak jaisten.



Bizikletaz eta oinez AHTren aurka

Hainbat lagunek egin zuten bat astelehenean *Herriz herri AHTrik Ez!* martxarekin. 19:00ak aldera heldu zen, eta oinez herriko kaleetan barrena ibilaldia egin ondoren, Munibe plazara iritsi zen. Han, Inaki Antigüedad eta Jesus Mari Garitano trenak eragingo dituen kalteez aritu ziren. Gaua Bergaran egin eta martitzenenean abiatu zen martxa, Antzuolarantz.

L Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz

L Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**

L Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63. BERGARA

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Zapatuko euriak eragindako beldurraren ondoren, lasai gozatu genuen San Martzial

MONIKA BELASTEGI

Herritar askoren ahotan izan zen eguraldia zapatuan. Ona zegoen iragarrita, baina egindako euri zaparradak ikusita, auskalo zer etor zitekeen hurrengo egunean. Dena dela, lagun izan genuen zerua, eta ez zuen euririk egin. Oinarri horrekin, aurrerako guttia berez etorri zen.

Goizean goizetik hasi ziren ekitaldiak. 07:30ean, lehenengo igoera izan zen letania erreztatuz, eta burdi igoera, berriz, 10:00etan izan zen. Gero, meza egin zuten ermitan eta, hortik aurrera, bertaratutako guztiak jaietan murgildu ziren buru-belarri. 12:15ean, Xamatzeko dantzariak dantza saioa egin zuten, eta horren ondoren, ohiko Aurrekuari ekin zioten herriko hainbat lagunek. Bertso saioa eta kantaldia ere ez ziren falta izan. Bazkalondoa, herri kirolen txanda iritsi zen, eta urte batetik bestera jende gehiagok hartu nahi izaten du parte. Sokatiran, esaterako, zortzi bikoterendako lekua izan arren, hamabik hartu zuten parte bai gizonezkoen atalean bai emakumezkoetan ere. Irabazleak honako hauek izan ziren, lehen postetik laugarrenera: emakumeetan, Gabero, Gu geu, Txingare eta Hanka zikinak; gizonezkoetan, Aupa Joxemai, Konektors, Mongitxarrak eta Mongatxurrak.

Txingei dagokienez, honakoak izan ziren irabazleak, lehenengotik hirugarrenera: Iban Arizabaleta, Aitor Fernández eta Gorka Garitano. Emakumezkoetan: Virginia Alonso, Jone Azkarate eta Eneritz Muguruza.

Urte batetik bestera jende gehiagok eman nahi izaten du izena sokatiran eta txinga jokoan



Dantza egin aurretik txintxo aurpegia guztiek, baina gero...



Txistulariek musika jarri ezean, eskumako argazkikoek ezin dantzarik egin.



Idiak beti bezala lanean, gainerakoek ardoa edateko.



Narbaiza eta Egileor bertsolariek ere ez dute hutsik egiten San Martzialetan.



Honezkeroko bikotea ere aurkituko zuten dantzariak hainbeste neska atera ondoren.



Kantinan, kantari. Bazkal aurretik jende ugari batu zen kantuan.



Zeinek dio Valentzian egiten dutela paellarik goxoen?



Laster tradizio bihurtuko zaizkigu ur-pistolak San Martzial egunean.




ZE ONDO, UDALEKUAK!

Astehenean hasi ziren neska-mutikoendako udalekuak. 400 ume inguruk eman dute izena, bi urtetik hasi eta 13 urte bitartekoak. Txikitxoek, hortaz, bi urtekoak ditugu, eta argazkian ikus daitekeen moduan, ludotekan ezin hobeto pasatzen dute. Oraindik txikitxoak direnez, bi ordu baino ez dira udalekuetan egongo, aitatxoren eta amatxoren falta handiegirik ez sumatzeko. Nagusiagoek kalean jolasteko aukera ere izango dute, eta Goriara eta igerilekuetara ere joango dira, besteak beste. 40 begiralek eta lau koordinatzailek dute umeen ardura.

JON ERRASTI BETI LAGUNAK EGITEN

Esan ohi izan den moduan, Jon Errastik "ez du denborarik galtzen". Ikusi, bestela, aste honetan ekarri digun argazkian norekin agertzen den: Anabel Arraiza kantari eta aktorearekin. Ezaguna dugu oso Anabel gure artean: batetik, *Goenkale* telesailiko Sara delako, eta, bestetik, Trikitake taldeko kantaria delako. Eskumakoa Bergarako Pazkoetan egindako argazkia da; Anabel Arraizak eta Trikitake taldeak Pazkoetan kontzertua egin zutenekoa. Jonek ez zuen albuma osatzeko aukera galdu, eta Anabelekin argazkia egin zuen. Beste batzuetan ere ekarri izan dizkigu Jonek pertsonaia ezagunekin egindako argazkiak: Toshack entrenatzailea, Raul Alcalá txirrindulari ohia, Javier Irureta entrenatzailea... Ea hurrengoan norekin harritzen gaituen.



ELTXOEK ALKABIETA KALEA MAITE DUTE

Uda, bai urtaro atsegina. Ia kasu gehienetan halaxe izaten da, baina noiz edo noiz udak ere eragiten ditu ezerosotasunak. Galde diezaietela, bestela, Alkabetako bizilagunei: eltxo gehiegi dagoelako kexua aurkeztu dute Udalean. Ez da egoera gozoa izango hango bizilagunena, eltxoak ziztatzten duten horietakoak direla kontuan hartzen badugu, batez ere. Badirudi Alkabieta inguru hartan lur azpiko ura dagoela, eta uda heltzearekin bat, horrek erakarri egiten ei ditu eltxoak; horregatik batzen ei da inguruan hainbeste ziztatzaile. Gainera, ez da egoera horretan dauden lehenengo aldia. Udaleko iturriek adierazi dutenez, duela bi urte gauza bera gertatu zitzaizen Alkabetako bizilagunei. Aldi hartan, enpresa lainoztatzaile batekin harremanetan jarri eta inguru guztia fumigatu zuten. Oraingoan ere enpresa berberarekin harremanetan jarriko da Udala, hartu beharreko neurriak hartzeko asmoz.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

BERGARARRAK MUNDUAN

AGUSTIN EZENARRO

71 URTE / FRANTZISKOTARRA / SANTANDER

“Santanderrera etorri ginenean, fundazioa ezartzea zen gure lana”

AINZANE IRIZAR

Hamabi urte besterik ez zuen Osintxutik Arantzazura joan zenean: “Fraide izan nahi nuen, bokazioa sentitzen nuen. Umetan horrelakorik ez dela sentitzen esaten dute, baina nik sentitzen nuen”. Bergaran Seminarioa zegoen, domingotarrak ere bazeuden, baina Agustín Ezenarrok argi zeukan frantziskotar izan nahi zuela.

Arantzazun hiru urte egin zituen; gero, Forura joan zen ikasketekin jarraitzera. Bi urte han egin ostean, Zarautzera joan zen nobizioa egitera. Olitera joan zen Zarautzik, filosofia ikastera, eta handik berriro Arantzazura itzuli zen, teologia ikasketak bukatzera.

Behin ikasketok bukatuta, Guadalajarako legendarunen etxean lanean aritu zen bost hilabetez; “hasieran beldur pixka bat ere pasatu nuen, bai-

na gero gustura jardun nuen gaixo haiei lagun egiten”, gogoratzen du Agustinek.

Guadalajaran zegoela, Santanderrera bidali zuten eta hantxe dago ordutik, 1957. urte-tik, hain zuzen ere. “Santanderko kanpoaldean kokatu ginen, Valdecilla ondoan;


“Hamabi urterekin joan nintzen Arantzazura, fraide izan nahi nuen-eta”

hemen ez zegoen parrokiarik eta gure lana izan zen fundazioa ezartzea”. Pixkanaka-pixkanaka, eta herritarren laguntzarekin, eliza berria egin zuten. Apaiz lanak egiteaz gain, misioetako ordezkaria da Agustín; misioetarako proiektuak bideratzen ditu berak.

Agustinek gogoratzen duenez, oso ondo hartu zituzten Santanderren.

Esan bezala, osintxuarrak da Agustín, eta harreman oso estua mantentzen du bere familia eta lagunekin. Oporretan, urtero etortzen da Osintxura, eta baita moja zaharretara ere San Frantziskoren bederatziurrenean.

Eliztarrekin bi eguneko irteera ere antolatzen du Euskal Herria bisitatzeko: Donostia eta Arantzazu bisitatzeko dituzte, besteak beste.



MINGAINARITIRAKA



Irene Zenitagoia

GOROSTI LORADENDAKUA

Irenek 29 urte dauzka eta ixa bi urte die Gorosti dendia jarri zebala. Lorak zaintzia lanbidia baiño lehenago, zaletasuna da Irenendako, eta hori argi laga dosku elkarrizketan zihar.

Gustokuen dozun lora?

Orkidiak gustatzen jat asko; barrurako lorarik polittena da, nere ustez.

Zein saltzen da gehixen?

Danetik; urtaruaren arabera izaten da.

Lora kontuan be badare modak?

Bai; orkidiak, esaterako, modan dare.

Lora bat edo bestia gustatziak zelakua zaren esaten dau?

Bai; loren koloriak, batez be. Adibidez, nobixa batek kolore gorridun erramu bat eskatzen badost, karakter gogorrekua izango dan seiñale.

Lorazaintzako sekretu bat?

Gaur egunian ez dago sekreturik; bezeruei azalpen danak emun bihar jakue.

Lorazain ezagun bati entzun jat esaten lorei berba egittia ona dan siñis-men hori tontakerixa dala.

Eta arrazoaia dauka.

Zure lanian ze da gehixen gustatzen jatzuna?

Lorak primeran darella esatera etortzia bezeruak.

Eta gutxien?

Nik emandako aholkuei kasorik be ez jauenian egitten bezeruek.

Bergarako txokorik polittena?

Ibargarai kalia, esaterako, oso ondo gertzen dabil; eta balkoiak be gero eta dotoriago apaindduta ikusten die.

Kolore bat?

Granatia; oso kolore elegantia da.

Usain bat?

Larrosa freskuarena.

Eta bukatzeko, amets bat?

Ondio berrixak gara dendan, eta ia dana ondo urtetzen jakun.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Iñaki Martínez

KENYA ETA SEYCHELLES UHARTEAK / 1996ko ekainean

Lagun batzuk gomendatuta, duela sei urte egin genuen Afrikarako bidaia Jaione emaztea eta biok. Lehenbiziko parada Nairobin, Kenyako hiriburuan, egin genuen. Arraza eta kultura ugari biltzen dira han eta Afrikako negozio gune garrantzitsuena da Nairobi. Beste bidaiakide batzuekin lur orotako ibilgailua alokatu ondoren, Kenyako parke naturalak bisitatzeari ekin genion. Mount Kenyako (Kenyako mendirik altuena) erreserbara joan ginen lehenbizi. Besteak beste, antilopeak, errinozeroak, ostrukak, jirafak, edo zebrak zeuden bistara, eta zoragarria izan zen. Afrikako naturak berehala harrapatzen zaitu, eta fauna eta animaliak gustuko dituztenendako Kenya da tokirik aproposenetakoa.

Iparraldean dagoen Samburu parkean ere izan ginen, eta gehien hura gustatu zitzaigun, ezberdina delako. Toki lehorrakoa da, eta han ere baziren lehoiak, krokodiloak edo elefanteak. Kenyako gobernuak asko zaintzen du turismoa, eta parke nazionaletara sartzen den turista kopurua zorrotz kontrolatzen dute.

Ur gazietao Nakuru Lakuan flamenkoei erreserbarik handiena biltzen da (milioika daude) eta faunan ikustea ia ezinezkoa den gepardo bat ere antzeman genuen, zuhaitz batean. Azkenik, Kenya eta Tanzania bitartean dagoen Masai-Mara parkera jaitsi ginen. Masai tribuak gerrazale ospea dauka, baina ganadu tratanteak dira nagusiki. Euren bizilekua ikusgarria da: ñuak, hipopotamoak, bufaloak..., denetik dago.

Bidaiako azken egunak Seychelles uharteetan igaro genituen, hango hondartzetan atsedena hartzen. Egia esateko, ez genuen eguraldiarekin zorterik izan, baina hondartzak xarmangarriak dira benetan.



“Afrikako naturak berehala harrapatzen zaitu”

“Kenyako gobernuak asko zaintzen ditu hango parkeak”

EDU MENDIBIL



Iñaki Martínez Seychelles uharteetako hondartza xarmangarri baten.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 Ibargarai 44-46
BERGARA BERGARA
943 76 20 49 943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Zuri Beltz
margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma

Pintura zerbitzu osoa

Moketak

943 76 14 60

607 447 494


943 76 59 59

Bergara

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



Beti-Bustiko piraguistak bikain ari dira eta hirugarren postua lortu zuten Euskadiko Txapelketan, taldeka.

PIRAGUISMOA

Beti-Bustiko lau piraguista Sort-en izango dira, Espainiako Txapelketan

Markel Agirre Euskadiko kadete mailako txapeldun, Iraitz Artolaren aurretik

EDU MENDIBIL

Beti-Busti taldeko Eneko Iturrospe, Lierni Errasti, Markel Agirre eta Iraitz Artola piraguistek domekan, uztailaren 7an, Sorten (Lleidan) jokatu den Espainiako Txapelketan hartuko dute parte.

Iñaki Gallastegi Beti-Bustiko ordezkariaren ustez, "Sorten dominaren bat lortzeko itxaropena daukagu. Taldeak oso maila ona azaldu du aurten eta ilusiorik, behintzat, ez zaigu falta. Ea gauzak ondo irtetzen diren".

Ur bizietako eslalom proban Beti-Bustiko lau piraguista arituko dira: Eneko Iturrospe senior mailan lehiatuko da, Lierni Errasti juniorrekin batera eta, azkenik,

Markel Agirre eta Iraitz Artola kadeteekin batera arituko dira domekan.

AGIRRE, EUSKADIKO TXAPELDUN

Markel Agirrek Bidasoa ibaian jokatu den Euskadiko Txapelketa eskuratu zuen, kadeteen mailan. Iraitz Artola taldekidea bigarren sailkatu zen. Bi txanda jokatu ziren: lehenbizikoan Iraitz nagusitu zen eta bigarrenean, berriz, Markelek lortu zuen garaipea. Azkenean, esan bezala, Markelek eskuratu zuen txapela, Iraitzen aurretik. Biak ere Sorten egon berri dira, ekainaren 22tik 29ra, Euskadiko Federazioarekin, domekako txapelketa gertatzen.

Lierni Errastik ere proba bikaina egin zuen Bidasoan eta

junior mailakoan artean 3. postuan sailkatu zen.

Taldeakako sailkapenean Beti-Busti hirugarrena izan genuen, gizonetakoan, emakumetakoan zein sailkapen absolutuan. Iñaki Gallastegiren hitzetan, "Atlético San Sebastian eta Irungo Santiagotarrak taldeekin batera, hor aurrean egon gaitezkeela erakutsi dugu. Gure piraguistek nabarmen hobera egin dute eta momentuan Gipuzkoako puntako taldeen artean gaudela esango nuke. Emaitzak hor daude. Ea Espainiako Txapelketan denboraldia biribiltzen dugun".

Beti-Bustik harrobi bikaina duela azaldu du. Izan ere, Leire Fernándezek infantil mailako Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen, Bidasoan bertan.

Igerilari infantilak bikain Gipuzkoako Txapelketan

E.M.

Igeri Elkarteko gaztetxoek emaitza bikainak lortu zituzten Ordizian jokatu den infantil mailako Gipuzkoako Txapelketan. Banakako hainbat dominaz gain, 4x100 metro estilo-koan urrezkoa lortu zuten.

Maite Urtzelaik, Neritzel Albi-suak, Elixabeth Laskurainek eta Goiatz Pérezek osatutako errelebuak urrezko domina irabazi zuten 4x100 metro estiloetan. Aste bukaeran Ordizian jokatu den Gipuzkoako Txapelketan bergarrek ondo baino hobeto jardun zuten, banaka ere hainbat domina lortu zituzten-eta: Maite Urtzelaik 100 metro bizkarreko proba irabazi zuen eta brontzezko bi domina ere irabazi zituen, 200 metro bizkar eran eta 400 estiloetan. Elixabeth Laskurainek urrezkoa eskuratu zuen 100 metro tximeleta proban eta zilarrezko estilo bereko 200 metroko distantzian. Neritzel Albi-suak, berriz, zilarrezko bi (100 metro bularrean eta 400 estiloetan) eta brontzezko domina bat (200 metro bularrean) jaso zituen Ordizian eta Goiatz Pérez bigarrena izan zen 100 metro libreetan eta brontzezko domina irabazi zuen 200 libreetan. Beste domina bat jaso-

tzeko zorian izan zen Goiatz, 200 metro bizkarreko proban laugarren sailkatu zen-eta.

Dominarik lortu ez zuten arren, Maria Galarragak eta Garazi Díazek txapelketa aipagarria egin zuten Ordizian: Maria laugarrena izan zen 100 metro bular eta 100 metro tximeleta probetan eta zazpigarren sailkatu zen 200 metro bularrean. Garazik, aldiz, ez zuen aurrenekoekin sailkaterik izan 100 metro libreetan.

ERRELEBU SENDOA

Igeri Elkarteko infantil mailako errelebu onenen artean izan genuen Ordizian. 4x100 estilo-tako proba irabazteaz gain, 4x200 metro eta 4x100 metro libreetan laugarren tokian sailkatu ziren Maite, Neritzel, Elixabeth eta Goiatz. Laurak ere datozen uztailaren 13an eta 14an Santurtzin jokatu den Euskadiko Txapelketa jokatzeko sailkatu dira.

Amaia Andueza Bergara Igeri Elkarteko entrenatzaile oñatiarrak oso positibotzat jo ditu Ordizian lortutako emaitzak: "Gure taldeko neskek primeran jardun zuten, eta puntuetako sailkapenean bosgarrenak izan ginen. Oso pozik nago lortutakoekin, urtean eginiko lanak fruituak izan dituelako. Gogor entrenatu dira guztiak".



4x100 estiloko proban urrezko domina irabazi zuen laukotea podiumean.

Soraluze A, infantil mailako neskak txapeldun Ipintzan

E.M.

Soraluze A futbol taldeak 5-2 irabazi zion Soraluze B taldeari, nesken alebin mailako Ipintza finalean. Soraluzetarrak izan dira onenak alebin mailako txapelketan eta Soraluzeko bi taldeek elkarren aurka jokatu zuten finala aurreko egubakoitzean. Hirugarren postua eskuratzeko partidua oso parekatua izan zen: Mutilzaleak taldeak eta San Martin ikastetxeak bina berdindu zuten, eta penal-

tietan San Martingoak nagusitu ziren.

Bi partidu horien ostean sari banaketa izan zen: soraluzetarrek txapeldunen eta txapeldunordeen kopak eraman zituzten eta, horrez gain, Alana Berrando Soraluze A taldeko jokalariek jokari onenaren saria jaso zuen. Bergarako Sorgintxoak txapelketako talderik gazteena izan da, eta, hori dela eta, kopa bat jaso zuen. Irabazleak taldekoendako ere sari bat izan zen.



Soraluzeko bi taldeetako jokalariek eskuratutako trofeoekin, joan den egubakoitzean, Ipintzan.

GIMNASIA

Leire Lasa, Espainiako Gimnasia Txapelketara

Ipuru taldean diharduen Leire Lasa bergararra xingolarekin arituko da aste bukaeran Madrilen jokatu den Espainiako Txapelketan

E.M.

Leire Lasa 15 urteko gaztetxo bergararrak Espainiako gazte mailako Gimnasia Txapelketan parte hartuko du domekan Madrilen. Leire xingolarekin arituko da eta, haren hitzetan, "ariketa ahalik eta ondoen egitea da nire asmoa".

Aurretik taldekakoan hainbat aldiz izan bada ere, Espainiako Banakako Txapelketan lehenbizikoz parte hartuko du Leirek. Domekako saioan xingolarekin arituko da: "Gimnasiako aparailuen artean, xingola eta uztai dira gehien atsegin ditudanak. Espainiako Txapelketarako bi minutu eta erdi inguruko ariketa prestatu dugu Susana Prieto entrenatzaileak eta biok. Musika alaia aukeratu dugu, eta zailena nerbioei eustea izango da. Horrelako txapelketetan tentsioa handia izaten da, eta kontzentrazioa ezinbestekoa da. Nire helburua ariketa ahalik eta ondoen egitea da. Ea entrenamenduetan landutakoa ondo ateratzen zaidan".

Leire zazpi urterekin hasi zen Bergarako Ariznoa gimnasia erritmiko taldean. Duela hiru urte ezker, Eibarko Ipuru taldearekin ari da eta pozik dago aurtun egiten ari den denboraldiarekin: Gipuzkoako Txapelketan laugarren tokian sailkatu zen eta Euskadikoan hirugarrena izan zen. Denboraldia biribiltzeko, Espainiakoan txapelketa ona egitea geratzen zaio.

Azken asteotan gogor entrenatu da, hiruzpalau orduz egunero. Hala ere, gimnasia oso gustuko du: "Nor bere burua asko zaindu beharra dago, oso kirol exigentea delako. Dena dela, elikadurarena ez da jendeak uste

"Zailena nerbioei eustea izango da. Kontzentrazioa ezinbestekoa da horrelakoetan"

bezain gogorra, nire kasuan, behintzat. Denetarik jaten dut. Alde horretatik, ez daukat inolako arazorik".

TALDEKA GUSTURAGO

Leire eguaztenean joatekoa zen Madriler. Jaione Tejedor taldekidea ere lehiatuko da Espainiako Txapelketan, pilotarekin, uztaiarekin eta mazoekin: "Eguaztenetik hainbat entrenamendu egingo ditugu Madrilen, txapelketa izango den kiroldegiko tapizera ohitzen joateko".

Espainiako Txapelketaren ostean taldekakoak prestatzen hasiko da ziurrenik: "Egia esateko, taldeka banaka baino gusturago ibiltzen naiz". Gustuko dituen gimnasten artean, Alina Kabaeva errusiarra eta Jennifer Colino espainiarra aipatzen ditu zalantzarik gabe.


Datorren urtean Batxilergo ikasketak egiten hasiko da Leire eta etorkizunean Fisioterapeuta edo SHEE ikasketak egitea gustatuko litzaioko: "Kirolarekin zerikusia duen zerbait egin nahi nuke. Ikusi behar".



Leire Lasa uztaiarekin egindako ariketa batean.

ARTXIBOA

FOTOKIROLA



Raquel Blancok eta Alberto Lerak gerriko beltza lortu dute

Shotokan taldeko Raquel Blancok (15 urte) eta Alberto Lerak (22 urte) gerriko beltza eskuratu zuten zapatuan Donostian eginiko probetan. Bost epaileren aurrean hainbat proba tekniko gainditu behar izan zituzten. Biek hala biek maila bikaina azaldu zuten eta gerriko beltzarekin itzuli ziren Donostiatik. Argazkian, Raquel, Alberto eta Josean Iñarra entrenatzailea.

FRONTENISA

Frontenis Txapelketako finala jokatu da zapatu goizean Angiozarko pilotalekuan

Jose Izquierdo eta Candido Hurtado arrasatearrek Patxi Vallejos-Xabier Albusua bikote bergararraren aurka jokatu dute Frontenis Txapelketako finala bihar, zapatua, 12:00etan, Angiozarren. Aurretik, 11:00etan, hirugarren posturako partidua izango da, Alejo Garcia-Carmelo Barcala (Bergara) eta Unai Mendia-Josu Auzmendi (Beasain) bikoteen artean.

IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

PARTIDUAK

EGUBAKOITZA 5

NEKAK, seniorrak
19:30: Ogizun-Arrano
20:30: Arloteak-Potzu ta Zapaburuak

ASTELEHENA 8

HAMAIKANAKO FUTBOLA
19:15: Final-laurdena
20:30: Final-laurdena

MARTITZENA 9

HAMAIKANAKO FUTBOLA
19:15: Final-laurdena
20:30: Final-laurdena

EGUENA 4

ZAZPINAKO FUTBOLA, beteranoak
19:30: Finalerdia
20:30: Finalerdia

EGUBAKOITZA 12

NEKAK, kadeteak
18:30: Arloteak-Elgeta (Finala)
NEKAK, seniorrak
19:45: Finala

ASTELEHENA 15

FUTBOL 11
19:30: Finalerdia

MARTITZENA 16

FUTBOL 11
19:30: Finalerdia

Hona hemen Merkealdiak

Garibai Etorbidea 2-6 • ARRASATE

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

ANTZERKIA/ Bisitan datozkigun bost indigenaren gorabeherak kontatuko dizkigute, San Martin plazan, 22:30ean

Oihulari Klown taldeak 'Otiacicoh' lana estreinatuko du zapatuan

MONIKA BELASTEGI

Oihulari Klown taldeak *Otiacicoh* azken lana aurkeztuko du bihar, zapatua, San Martin plazan. Klown jolasaren lañotasunaren haritik, El Salvadorko bost indigena aurkeztuko dizkigute ikuskizunean. Bost bisitari horien begietara zelan azalduko gara?

Otiacicoh du izena Oihulari Klown taldearen azken lanak. Nahuati hizkuntzan "iritsi gara" esan nahi du, eta horrelaxe izango da zapatuan: El Salvadortik datozen bost indigena iritsiko dira Bergarara; imajinaezinak diren 1500. urteko bost indigena. Nahuatieraz hamabi berba baino ez dituzte egiten; edozelan ere, klown jolasaren lañotasunean oinarrituta gauza asko dituzte kontatzeko. Batik bat, zelan ikusten gaituzten, gure janzkera zer iruditzen zaien, gure janaria, gure autoak, harremanak...

Beste jende mota bat, herrialdeak eta bizi izateko modu ezberdinak ikertzeko utzi dute El Salvador, eta Bergarako San Martin plazara helduko dira zapatuan euren bidaian. Pixka bat beldurtiak ere badira bost indigenok, eta arriskua sumatzen badute, euren presentzia ezkutatzearren hostoak janzten dituzte; gainera, arriskua hurbilean dutela ikusiz gero, guztiak elkartu eta, dauden tokian daudela, San Martin pla-



OIHULARI KLOWN

Antzezlaneko indigenek hostoak erabiltzen dituzte euren presentzia ezkutatzeko; baita zuhaitz bihurtu ere.

zaren erdian baldin bada ere, zuhaitz bat sortzen dute.

ADIN GUZTIENDAKO IKUSKIZUNA

Oihulari Klown antzerki taldearen *Otiacicoh* azken antzezlanak kalean egiteko ikuskizuna da, zangoekin, zuzeneko perkusioarekin eta klown kodean antzez-

teko pentsatuta dago. Baita adin guztietako ikusleak alaitzeko ere. Gainera, hainbat kulturatako pertsonen arteko harremanen gainean hausnartzeko gonbidapena ere egiten du Oihulari Klown taldearen azken lanak.

Antzezlanaren zuzendaria Bergaran horren ezagun dugun

Virginia Imaz da, eta gidoiaren egilea ere Virginia bera dugu. Jantziak, berriz, Mabel Gutiérrezenak eta Nona Umbert-enak dira. Bost indigenok antzeztzen dituzten aktoreak, honako hauek: Sergio Daneri Guzman, Rakel Imaz, Joanez Loko Iza, J. Carmelo Muñoz eta Txefo Rodríguez.

KULTURAPILULAK

Usoa Mendikute saritu UNEDeko Pintura Lehiaketan

Usoa Mendikute bergararrak hirugarren saria eskuratu du UNEDek antolatutako Pintura Lehiaketan, *Ama* izeneko lanarekin.

Guztira, 107 lan aurkeztu dituzte Bergarako UNED zentroak 25. urteurreneko ospakizunen barruan antolatutako I. Pintura Lehiaketara. Lehenengo saria Antonio Carretero valentziarrak jaso du, *Hora punta* lanarekin; bigarrena, Pedro Ismael Iglesias bilbotarrak, *Pelotas* lanarekin, eta hirugarrena, esan bezala, Usoa Mendikute bergararrak. Hurrenez hurren, honako sariak jaso dituzte: 3.000, 1.500 eta 750 euro.

Aurkeztutako lan guztien artean epaimahaiaren ustez maila altuena duten hamabost lanekin erakusketa antolatuko dute kultura etxean, urriaren 31tik azaroaren 13ra bitartean, hain zuzen ere.



ARTXIBOA

Usoa Mendikute.

Autoak bedeinkatuko dituzte eguaztenean, San Kristobal egunean

MONIKA BELASTEGI

San Kristobalgo bizilagunek auzoko jaiak ospatuko dituzte datorren astean barrena. Eguaztenean da San Kristobal, eta, urtetako ohiturari jarraituz, egun horretan autoak bedeinkatuko dituzte.

San Kristobal jaietako ospakizunak gaur, egubakoitza, hasiko dituzte auzotarrek. 22:00etan, ohiko pinu jartzea egingo dute, etxafuego jaurtiketek eta kanpai hotsek lagunduta. Gero, auzokoendako txokolate-jana izango da.

Ospakizunek eguaztenean, uztailaren 10ean, jarraituko dute. San Kristobal eguna izanik, 12:00etan, meza nagusia egongo da, eta gero, autoak bedeinkatuko dituzte; eta auzoko erretiratuendako luncha egongo da.

Bedeinkapenaren ondoren, Haritz eta Enaitz trikitilariak alaitutako erromeria egongo da,



ARTXIBOA

Eguaztenean, hilaren 10ean, autoak bedeinkatuko dituzte, 12:00etan.

eta gauean, berriz, Gardoki trikitilariak alaitutakoa, 23:00etan hasi eta goizaldera arte.

Horren guztiaren ondoren, zapatuan jarraituko dute jaiak, hilaren 13an, hain zuzen. 23:00etan, Muxutruk taldearekin

erromeria egongo da, goizaldera arte. Domekan, 12:00etan, meza nagusia izango da, eta gero, auzoko erretiratuendako luncha. Eta horren ondoren, jaiak amaitzeko, Haritz eta Enaitz trikitilariak saioa egingo dute.



Lehen jazz saioa gaur, 22:30ean, Espoioian

Delicatessen taldeak irekiko du jazz emanaldi sorta. Musika estilo antzekoak gustuko dituzten lau lagunek sortu zuten Delicatessen 2001ean: bateria, baxua, gitarra eta Bergarako Jesus Álvarez saxoak. Euren konposatutako doinuak jotzen dituzte, batez ere. Estiloari dagokionez, jazz, rocka eta *funky*-a jorratzen dituzte, baina baita latina eta flamenkoa ere. /M.B.

E, TXO!

ELKARRIZKETA

KONTZERTUA GAZTETXEAN

Gaur gauean, egubakoitza, kontzertua izango dugu Bergarako gaztetxean, 22:30etik aurrera. Arrasateko Versus musika taldearen emanaldiaz gozatzeko aukera izango dugu, hiru euroren truke.

EGK-KO KOORDINATZAILEA

Euskal Gazteriaren Kontseiluak Bizkaiko koordinatzaile lanak egingo dituen gazte bat behar du. Egun osoko lanpostua eskaintzen dute eta Bilbon lan egin beharko du koordinatzaile horrek.

Euskal Gazteriaren Kontseiluak duen webgunean aurkituko duzue informazio gehiago: www.egk.org.

Curriculumak aurkezteko azken eguna uztailaren 8a izango da. Honako helbide hauetara bidali behar dira curriculumok: bilbao@egk.org helbide elektronikora edo Bilbo honako helbidera: Autonomia kalea 44, behea.

ESKALADA IKASTAROA UZTAILEAN

Hastapeneko Eskalada ikastaroa antolatu du Elgetako Udal Kirol Zerbitzuak uztailarako. Uztailaren 16tik 19ra izango da ikastaroa Elgetan, Eibarko rokodromoan eta Eginon (Arabian). Materiala zelan hasi behar den erabiltzen, oinarrizko progresio teknikak eta bestelako hastapeneko ezagutza batzuk eskainiko dituzte ikastaroan.

Izena emateko epea uztailaren 11n amaituko da (60 euro). Leku mugatuak daude; hortaz, lehenbailehen eman beharko dizue izena Elgetako Udal Kirol Zerbitzuan bertan.

IBAI REDONDO/IKASLE ABERTZALEAK TALDEKO KIDEA

“Euskal Herriaren zerbitzura egongo den unibertsitate euskalduna behar dugu”

AINTZANE IRIZAR

Bai Euskal Unibertsitateari izeneko ekimena sortu dute hainbat taldek. Ekimen hori bultzatzeko sinadurak batzen egon ziren joan den domekan San Martzialen. Tartean Ibai, Ikasle Abertzaleak taldekoa.

Zein taldek bultzatu duzue Bai Euskal Unibertsitateari ekimena?

Lehenengo, unibertsitate barruko taldeak izan dira ekimenaren bultzatzaileak: UEU, Euskal Adarra, Uniekimena, EIRE Irakasle euskaldunen elkartea, Ikasle Abertzaleak... Baita irakaskuntzako beste hainbat eragile ere: Ikasbatuaz, ikastolak... Azkenik, AEKren eta kaleko beste hainbat eragileren laguntasuna ere izan du ekimenak.

Zergatik sortu da ekimen hori?

Euskal unibertsitatea sortzeko gogoia dagoela agerikoa delako. Euskaraz ezin da ikasi, ez bizi ezta lanik egin ere; unibertsitateetan ematen diren edukiak espainolak edo frantsesak dira eta, azken baten, Euskal Herriko unibertsitateak bi estatu horiei


begira daude. Azken baten, Euskal Herriaren zerbitzura egongo den unibertsitatea behar dugu eta unibertsitate hori euskalduna izan beharko da; Euskal Herriak profesional euskaldunak behar dituelako.

Eta oraingo kanpaina konkretu horren helburua zein da?

Unibertsitatean ikusten den arazo eta behar hori gizarteratzea. Badakigu gizarterean ez duela eragin handirik gai horrek; izan ere, unibertsitatea eta herria nahiko bananduta daude, ez dago harreman handirik bien artean. Gizar-teak laguntasun handia ematen badigu, euskal unibertsitatea lortzeko beste urrats batzuk eman go genituzke; horretarako, euskal unibertsitatearen proiektua idaztea izango litzateke hurrengo urratsa.

San Martzialen sinadurak batu zenituzten. Zelako erantzuna jaso zenuten?

Oso ona. Eraman genituen sinadura-orri guztiak bete genituen; oso pozik gaude jasotako erantzunarekin. Horregatik, beste egun baten sinadurak batzen jarraitzeko asmoa dugu, beharra ikusi genuen-eta.



AINTZANE IRIZAR

Batufako sinadurekin zer egingo duzue?

Sinadura horiek ez dira inon aurkezteko. UEU euskal unibertsitatea sortzeko helburuarekin

sortu zen; azaroan kongresua egingo du UEUk eta ordurako 55.555 sinadura batzea lortzen badugu, udazken aldera zerbait martxan jartzen saiatuko gara.

GUREGAIK/ IKASTAROA

Gaztemiran etxebizitzaren gaia aztertu dute

AINTZANE IRIZAR

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuak gazteekin lotutako gai baten gaineko azterketa eta hausnarketa egiten du urtero; aurten, etxebizitzaren gainean egin dute hausnarketa hori.

Hainbat adituren laguntzarekin egin du Gazteria Zerbitzuak etxebizitzaren gaineko azterketa hori.

Etxebizitzak gizarte osoaren arazo diren arren, gazteengan eragin berezia du. Hori dela eta, aurten, gai horren gaineko azterketa egin du Aldundiak.

Egin duten lanak lau zati ditu: lehendabiziko zatian gazteen bizi-

tza proiektuetan eragina duten faktoreak zeintzuk diren eta etxebizitza izateak zenbaterainoko garrantzia duen aztertu dute; bigarren atalean Gipuzkoan gertatutako eraldaketa demografikoak aztertu dituzte; hirugarren zatian eskaeraren analisisa egin dute; zeintzuk diren etxebizitza behar duten gazteak, zer nahi

duten eta zeintzuk diren euren baliabideak; eta laugarren zatian, azkenik, etxebizitza eskaintza aztertu dute.

Txosten hori irakurri nahi izanez gero, honako webgune honetan aurkituko duzue: Gipuzkoako Foru Aldundiaren www.gipuzkoa.net webguneko *Gaztemira* sailean, hain justu ere.

TIRABIRAKA/ Bittor Rodríguez



ZAHARRENETXETIK

San Joxepe Abesbatzak kurtso amaierako bazkaria egin zuen martitzenean

EDU MENDIBIL


U more ezin hobean, San Joxepe Abesbatzako kideek ikasturte amaierako bazkaria egin zuten martitzenean. Berrogei lagun inguru batu ziren eta, zelan ez, bazkalostean kantatzeari ekin zioten, Migel Sagastume soinu jotzailearen laguntzarekin. Bi lagun ere omendu zituen abesbatzako Zuzendaritza batzordeak: batetik, Susana Iza ohorezko laguntzaile izendatu zuten; eta, bestetik, Natalio Juaristik diploma jaso zuen, fin-fin entsegu gehienetara joan delako. Nataliok 90 urte beteko ditu azaroan eta ilusio handiz ari da abesbatzan. Hala erakutsi zuen martitzenean ere, abesteko eta dantzatzeko orduan ez zen atzean geratu-eta. Markos Labaienek bertsoak eskaini zituen omendutakoei, batutakoan txalo artean.

TALDEKA GUSTURAGO

Joxe Patxi Azkarate abesbatzako zuzendariak ere hitz batzuk esan zituen: "Ez dakit zuei ezer erakutsi dizuedan, baina zuek niri gauza mordo erakutsi didazue. Taldean dagoen giroa ez da edonon aurkitzen. Segi horrela urte askoan".

Dantzaldiari ekin aurretik, Susana Izak pare bat opari zozketatu zituen eta Angelita Mitxelena eta Peio Garitano izan ziren sarituak. San Joxepeko Abesbatzak Antzuolako parrokiaren emaldia egingo du uztailaren 14an. Ondoren, udako oporrak izango dituzte, eta irailean berriro ere entseguekin hasiko dira.

Abesbatzako Zuzendaritzak Susana Iza eta Natalio Juaristi omendu zituen



Markos Labaien, Natalio Juaristi eta Fernando Azkarate.




Berrogei lagun bildu ziren San Joxepe elkartearen martitzenean egindako bazkarian.



Migel Sagastume "Urkiko magoa" k alaitu zuen bazkalostea soinuarekin.



Peio Garitano, Susana Iza eta Angelita Mitxelena.



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

BERGARAN
BULEGO BERRIA



BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

**10 URTEKO
ESPERIENTZIA!**

GOIERRI
AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein da San Kristobal auzoko baserri honen izena?

GALDEDEBALDE

1. San Martzial egunean, zein izan zen irabazlea emakumezkoendako txinga eroatean?
A/ Virginia Alonso.
B/ Jone Muxika.
C/ Jone Azkarate.
2. Oihulari Klown-en *Otiacico* hantzezlanean bost indigena dira protagonista. Nongoak?
A/ Kenyakoak.
B/ Patagoniakoak.
C/ El Salvadorrekoak.
3. Zein taldetan ari da Leire Lasa gimnasta bergararra?
A/ Ariznoa.
B/ Ariz-Ondo.
C/ Ipurua.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileron artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANDONI ITURBErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Andoni! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Simon Arrieta plazan eta Xabier Munibe plazan / Galde debalde: 1-A, 2-C, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

San Miguel garagardoa

33 cl.ko lata

0,37 €

62 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



SANTAMARINAKO ALTXORRAK

Erretaula barroko-rokoko

ERREDAKZIOA (ONDAREA ARTISTIKOA BILDUMATIK)

Santa Marina Gipuzkoako zutabedun elizen eredurik onenetariko dugu. Hainbat agiritan jasotzen denez, eraikuntza lanak XVI. mendearen erdialdean hasi ziren eta 130 urte iraun zuten.

Erretaula Nagusiari dagokionez, Migel de Irazusta arkitekto ospetsuak egin zuen eta barroko-rokoko estilokoa da. 1742ko obra honetan Migel de Irazusta maisu mihistatzaileak erretaularen kontzeptio berria sortu zuen: pisuz osatutako banaketa horizontala eta kalez osatutako bertikala zuten XVII. mendeko erretaula barrokoen eta erretaula errenazisten lekuan, irizpide koherente eta unitario batean oinarrituriko eraikuntza-mota moldatu zuen. Erretaula bera artelana da eta ez eskultoretarako marko hutsa. Bere dekorazioa bikaintzat jo daiteke.

Erretaula Nagusiko tailen egilea Luis Salvador Carmona eskulturgilea da. Erretaulako hainbat eskultura dira aipagarriak, hala nola atikoan aurkitzen diren lau bertuteenak, Santa Marinaren martirioaren medailoia edota San Jeronimo eta San Agustinenak.

Erretaula Migel de Irazustak egin zuen eta tailen egilea Luis Salvador Carmona da



POL-POL ARGAZKI TALDEA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIK FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

FIGUREN INTURAK

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA



BERGARA
Asier Lakuntza
Uztaillaren 8an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Jone Mujika
Uztaillaren 5ean urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Maitane.



BERGARA
Jesus Maria Matilla
Uztaillaren 6an 33 urte.
Urte askotarako!
Maitasunez, familiakoak.



BERGARA
Nahia Cotillas
Ekainaren 28an 10 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Jon.




BERGARA
Julen Etxaide
Uztaillaren 9an 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Jon Ander Roman
Uztaillaren 7an 9 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Naiara.



BERGARA
Gorka Marquez
Uztaillaren 5ean 3 urte.
Urte askotarako! Elisa,
Mikel, Julen eta etxekoak.



ANTZUOLA
Maddi Lezeta
Uztaillaren 7an urtebete.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Josu Herran
Uztaillaren 5ean 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



ANTZUOLA
Mikel Mata
Uztaillaren 10ean 7 urte.
Urte askotarako! Jon,
amama eta gurasoak.



BERGARA
Jurgi Zuazo
Uztaillaren 7an 8 urte.
Urte askotarako! Aratz,
Celso, Abu eta gurasoak.



BERGARA
Jokin Elgoro
Uztaillaren 7an 27 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



BERGARA
Kristina Tejada
Uztaillaren 8an 20 urte.
Urte askotarako!
Ezetz asmatu nork?



BERGARA
Mikel Agirrezabal
Uztaillaren 5ean 38 urte.
Urte askotarako!
Nerea.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia,
astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. / Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. / Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, BERRIGARAn agertu ondoren. / Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA



943 76 20 61
BERGARA

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXO eta BOKADILAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

BOLU SUKALDEAK



2000eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu, 22-behea . Bergara . Telefonoa eta faxa : 943 76 27 02

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

ZURE
ZERBITZURA!!

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko uztailearen 5a / 120. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Hainbat gazte elkartu eta Antzuolako Gazte Asanblada sortu berri dute

AINTZANE IRIZAR

Badira urte batzuk Antzuolako Gazte Asanbladak funtzionatzen ez duela. Duela gutxi, baina, herriko hainbat gazte elkartu eta Gazte Asanblada berria sortzeko lanean ari dira. Herriko jaietan aurkeztuko dute euren burua, antolatutuzten ekitaldien bitartez.

Gaztetxerik gabe, baina Antzuolako gazteak ez daude geldirik egoteko prest. Gazte Asanblada birsortu dute.

Gazteen inguruan lan egitea da euren helburua: "Gazteok ere hor gaudela erakutsi nahi dugu; gainera, gazteondako ez dago ezer eta herrian bizitasun pixka bat jartzea nahiko genuke", azaldu digute Gazte Asanbladako kideek. Hamar bat lagun elkartzen dira, udaletxean bertan, egubakoitz arratsaldero.

Herriko jaietan hasiko dira euren lanarekin. Hainbat ekitaldi antolatzen dihardute eta, gaztetxerik ezean, txosna ere jarriko dute. Besteak beste, kontzertua antolatuko dute jaietako egubakoitzean eta Herri Arteko Olinpiadak ere egongo dira.



Gaztetxea gazteendako taberna hutsa baino zerbait gehiago izatea nahi dute Gazte Asanbladako kideek.

GAZTETXEAREN ETORKIZUNA

Aurrera begira, Gazte Asanblada izango denaren eta gaztetxearen funtzionamenduaren gaineko plangintza egiteko asmoa era-

kutsi dute Gazte Asanbladako gazteek. Protagonista nagusiak eurak izanik, gaztetxearen gaineko hausnarketa egingo dute eta udaleko arduradunekin harre-

manetan jartzeko asmoa dute. Besteak beste, argi dute azkeneko urteotan gaztetxeak izan duen funtzionatzeko era eta helburuak aldatu nahi dituztela. "Azken

Gazteak ere hor gaudela erakutsi nahi dute, eta herriari bizitasun pixka bat eman

baten, ez dugu nahi gazteen taberna bakarrik izango den gaztetxe bat", azaldu digute. Gaztetxearen helburua ez da izan behar, euren ustez, dirua ateratzeko taberna hutsa izatea; hori baino gehiago eskaini beharko luke.

Hori aldatu nahi dutela, hortaz, argi daukate. Horretarako, inguruko hainbat herritako gaztetxeekin harremanetan daude Gazte Asanbladakoak, euren funtzionatzeko era jakin nahian.

PROIEKTUAREN GAINEAN

Udaleko arduradunekin harreman txikia ei daukate, baina aurrera begira, gaztetxearen proiektua lankidetzan egin nahiko lukete. Ideiak badauzkate, proiektuaren gainean berba egin dute eta gai hori sakonago aztertzen ari dira.

HERRITARREN HITZA / Alaitz Jauregi • Gizarte laguntzailea

Logela bat

Ez, ez, ez noia logelen itxuriaz, ez eta muebliaz berba egitera, ez dauka horrekin zerikusirik. Zertaz orduan? Egon ba! Ointxe noia-ta esplikatzera: tristia da, bai, baina zein ez da konturatu Antzuola logela erraldoi batetan bihurtzen dabilela? Lehengo aldiaren etxe gehixago daude, kale barrirak zabaltzen dira, lehengo urtekin konparatuta jaiotze tasia igo egin da, berrikuntza asko egin dira eta egiten ari dira, baina hala be, "Kit Kat" baten barruan dagola esango nuke nik.

Bizitasun pixkat galdu dabela jakinik da eta betiko

"pertsonalidadia" berreskuratzia komeni jako, ez dozue pentsatzen? Taberna kontutan, adibidez, gero ta eskaxago gabitz: Santiona eta El Caserio itxitta, Gaztetxia eta Jubilauak desagertu egin dira (nahiz da zabaltzeko asmua dagon)... komertzio aldetik ez da bape aurrerapenik egon... Hombre! Ez dot esatia nahi Portaventura, Terra Mitica edota Garbera bat zabaltzen biharko giñukerik,



"Herrixak bizitasun pixkat galdu dau"

dudarik. Zela? Zer egin? Nundik hasi? Proiektu berriak sortuaz; esate baterako, adibide gisa hor daukagu

ez da gutxiagorik be, badakigu "negozio txiki" bat zabaltze hori arrisku handikua dala 1.900 biztanletako herritxo baten; erreza da esatia, egiza da, baina danon aldetik mobimentu pixkat ipintzia lortuko baginu, Antzuolak asko irabaziko lukela eztago

eskolako jangela berrixa, aurrerapen egokixa benetan, haurtzaindegixan gaixa be aztertzen hasitta gaude irtenbiderik edukiko luken ala ez ikusteko... Horrelako ekintza berriek herrixari bultzada haundixa emungo jaue, hori argi dago. Adierazi nahi doten bakarra da, ez garela geldi geratu bihar Antzuola "ciudad dormitorio" baten zela bihurtzen dan ikusten dogun bittartian. Horren ordez, imajinaziñuari eta baliabidiei hamar milla buelta emun biharko jeu eta ia ba herrixa pixkat piztia lortzen dogun herritar danon artian!!!!

LABUR

Erretiratuen urteroko bazkaria, uztailearen 14an

Uztailearen 14an (domeka) egingo dute erretiratuek urteroko bazkaria. Udal Pilotalekuan izango da, 14:00etan.

Goizean, 11:30ean, meza entzungo dute parrokiaren.

Bazkari horretara joan nahi dutenek hilaren 8an, 9an eta 10ean erretiratuen egotzian izango dituzte txartelak salgai, 18:00etatik 19:00etara. Eta lau euro ordaindu beharko dute.

Aurten Modesta Gabilondo eta Alejandro Telleria omenduko dituzte.

KIROLA

San Martzialgo Igoerarekin, bukatu dira Aiastui Peñak antolatutako bizikleta probak

AIANTZANE IRIZAR
Aiastui Peñak antolatutako bizikleta probak joan den domekan bukatu ziren, San Martzialgo Igoerarekin. Horrela, aurtengo sailkapen orokorra ere erabakita geratu da; dena dela, parte hartu zuten guztiei eman zizkieten sariak antolatzaileek.

Ekainaren 8an hasi ziren Aiastui Peñak antolatutako bizikleta probak. Iralako Igoera jokatu zuten egun hartan, eta ginkana jokoak ere izan ziren Zurrategiko plazan; uztailaren 15ean, Uzarragako Igoera jokatu zuten; hilaren 22an berriro izan zituzten ginkana jokoak eta, esan bezala, joan den domekan, azkenik, San Martzialgo igoera jokatu zuten neska-mutikoei.

Infantilen mailan Andoni Muguruza izan zen irabazlea San Martzialen; alebinetan Aitzol Iturbe, benjaminetan Jon Iturbe eta aurrebenjaminetan, azkenik, Mikel Asensio.

SAILKAPEN OROKORRA
Infantiletan Andoni Muguruza izan da lehena sailkapen orokorrean. Alebinetan honakoa izan da sailkapena: Aitzol Iturbe lehenengo, Ibai Zabalo bigarren eta Unai Ormaetxea hirugarren.

Benjaminetan Jon Iturbe sailkatu da lehenengo, Aitor Laskurain bigarren eta Ander Arana izan da hirugarrena.

Aurrebenjaminetan, azkenik, honakoa izan da sailkapen orokorra: Mikel Asensio izan da garaile, Txomin Esnaola bigarren tokian sailkatu da eta Aritz Kortabarria izan da hirugarrena.



Mikel Asensio, Aitzol Iturbe eta Jon Iturbe.

JUANJO ETXEZARRETA

LABUR

Arrolak antolatuta, kanpaldia egingo dute Allotzen

Uztailaren 13an eta 14an egingo dute kanpaldia. Bi egun horietan hainbat ibilaldi eta eskalada ikastaroa egingo dute, besteak beste. Uztailaren 9an, 19:00etatik 20:00etara duzue izena emateko aukera. Nagusiek 25 euro eta gazte-txoei 15 ordaindu behar dute.

Tonbolan egoteko prest daudenentzat deialdia

Anelkarrek jaietan jarriko duen tonbolan lan egiteko prest daudenek Kontxi Laskuraini (943 76 60 62) edo Jabier Etxanizi (943 78 70 56) deitu diezaiekete. Egubakoitz arratsaldean eta zapatuan egun osoan egongo da zabalik tonbola hori.



San Martzialak Lizarragan

Domeka eguraldi ilun samarrekin hasi genuen, eta horregatik-edo, ohi baino jende gutxiago egon zen San Martzial ermita aurrean egiten duten bazkarian. Normalean baino jende gutxiago bai, baina urteroko giro ona egon zen. Ermitaren aterpea sukalde eta taberna bihurtu zuten eta majo bazkaldu zuten han batutakoek. Eguraldiak, gainera, hobera egin zuen; eguzkia atera zen eta gerizpe bila ere hasi zen jendea bazkalostean.

Bazkalostean, nagusien ohiko tertulia eta umeen jolasarako denboraren ostean, arratsaldeko bostak aldera, Joxe Gardoki Eguzki taldeko musikariak akordeoia hartu eta dantzan jarri zituen guztiak, argazkian ikus daitekeen moduan./A.I.



AHTren aurkako martxa Antzuolatik

Abiadura Handiko Trenaren aurkako bizikleta martxa uztailaren 2an, martitzenean, iritsi zen Antzuolara. Bergararik irten zen bizikleta martxa martitzen goizean, eta 11:20 inguruan iritsi ziren Eguzki auzora. Hainbat herritar zeuden hantxe martxaren zain. Herria oinez zeharkatu ostean, Itsasondora abiatu ziren AHTren aurkako kideak./A.I.

Juan Cruz
ARGAZKIAK

EOS 3000
28-80 zooma



OPARIA

Uztailean, abuztuan eta irailean errebelatutako erroiloen artean zozketatuko da

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

Apinketarako eta
industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua
eta
barnizaketa

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko uztailaren 5a / 105. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Lorontziak jarri dituzte balkoiak babesteko

OXEL EROSTARBE

Sarritan kexatu izan dira Salvador kaleko bizilagunak, bertatik kamioiak igarotzean, auto bat gaizki aparkatuta egoteagatik edo kamio-gidariaren huts egiteagatik, bertako balkoiak jotzen dituztela. Hori eragozteko, Udalak hartu duen lehen neurria bidean sei lorontzi jartzea izan da.

SEMAFOROAK UZTAILETIK AURRERA

Uztail bukaeran edo beranduenek irailean hasiko dituzte herritik igarotzen diren autoek abiadura murrizteko semaforoak eta zebra-bideak ipintzeko lanak. Semaforoen eraginez, aurrerantzean, Salvador kalea eta arkuia norabide bakarrekoak izango dira. Ezarri nahi duten sistema konplexua da, eta hurrengo asteotan zenbait froga egingo dituzte sistema ondo dabilen ikusteko.



Kamioiak etxebizitzetara hurbiltzea eragotziko dute lorontziek.



Artium museoko autobusa Elgetan

Martitzenean, uztailaren 9an, egun osoan, Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoko autobusa Elgetan izango da. Artium museoko autobusa museoarekin lehen hartu-emana izateko balio duen ikasgela iraunkorra da. Elgetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bisitatu ahal izango da Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoko autobusa. /O.E.

KIROLA

Oinatz Bengoetxeak irabazi zuen Elgetako Lau t'erdiko Txapelketa

Elgetako frontoian aurreko urteotan baino jende gutxiago batu zen, baina pilotariak maila bikaina erakutsi zuten Lau t'erdiko Txapelketako finaletan.

Oinatz Bengoetxeak txapelketa bikaina egin du. Mendizabalena aurka partidu bikaina jokatu zuen finalurrekoetan eta finalean ere, duen maila erakutsita, nahiko erraz hartu zuen mendean Agesta. Izan ere, Agesta izan zen ohean gaixo zegoen Altuna ordezkatu zuena. Agestak hasiera bikaina egin zuen eta 8-4 aurreratu zen. Bengoetxeak hasierako urduritasunak alde batera utzi zituenenean, ordea, behera egin zuen bere jokoa. Tantoak bikain amaituz, Oinatzek irailean profesioalera zergatik igoko den erakutsi zuen. Azkenean, 22-15. Txapela, merezimendu osoz, Leitzako pilotariendako.



Etorkizun handiko pilotariak direla erakutsi dute pilotari guztiek txapelketan.

KADETEETAN CASTILLO NAGUSI

Castillok eta Esnaolak partidu polita jokatu zuten. Iurretarrak abiadura izugarria ematen dio

pilotari ezkerrekin, eta Esnaolak ezin izan zuen ezer egin hori eragozteko. Amaieran, 22-13. Txapela Castillo eraman zuen.

LABUR

Sodupen irabazi ondoren, Jone Muxika Euskadiko Mendiko Bizikleta Txapelketara

Jone Muxika denboraldi bikaina egiten ari da. Aurreko asteburuan, Sodupen izandako Bizkaiko Challenge proba irabazi zuen. Euskadiko Openean jokatuak zortzi lasterketan aurreneko hiruen artean amaitu du. Lasterketa bakarra geratzen da Opene amaitzeko eta elgetarra bigarren postuan dago.

Domekan, Tolosan izango da Jone, Euskadiko Txapelketan. Irabaztea zaila izango dela badakien arren, horretan saiatuko dela esan digu. Denboraldia amaitu aurretik, uztailaren 21ean, Leonen jokatu den Espainiako Txapelketara joango da Jone ziurrenik.



Atzeratutako bi futbito partidu jokatu dituzte zapatuan, finalurrekoen esperoan

Datorren astean izango dira Areto Futbol Txapelketako finalurrekoak. Finalurrekoetarako sailkatuta daude Arineketan, Vicios eta Txapela. Bar el Arcok ere aukera asko ditu finalurrekoak jokatzeko. Matematikoki, ordea, asteburuan bi partidu jokatu dituen Chievok aukerak ditu Bar el Arcoren aurretik geratzeko.

Zapatu arratsaldean bi partidu jokatu ditu Chievok. Lehenengo La Kokotxaren aurka, 16:00etan, eta bigarrena MTSen aurka, 17:30ean. Bi partiduak irabazi eta 11 gol sartu beharko dituzte Bar El Arcoren aurretik geratzeko, eta 19 Txapela gainditzeko.

Eguraldixa ez zan oztopo izan Ferixa Nagusixak bihar zan moduan ospatzeko

OXEL EROSTARBE

Oin dala astebete jaixetan mur-gildduta giñan elgetar danok. Eguraldixak ez lagundu arren, giro paregabia egon zan Ferixa Nagusixetan. Batez be, elgetarrok gozatu dogu jaixez, zapatuan izan ezik, kanpotik ez da-eta jende askorik etorri.

Urtero moduan, eguenian, giro aparta egon zan herriko kalietan. Basarritar jantzittakuez gain, miss-ak eta gizaki prehistorikuak ikusteko aukeria izan giñuan. Herri afarixan be iñoiz baiño jente gehixago batu zan, 130 lagunetik gora.

Barikuan, trialsin erakustaldixak eta Elgetako Punteroi taldiaren kontzertuak izan zebeñ arrakasta haundixen.

Asto lasterketiakin hasi zan zapatuko egitaraua. Asto batzuk monturia zeukela-eta, pike bat edo beste izan zan. Batzuek parterik ez hartzeraiño pikia. Aurrerago holakorik ez dein geratu, arauak jarri biharko dira. Arratsaldian, Umien Tanborradan, Tanbodarradako sarixa emon zotsen Jon Sarasketari.

Domekan, ferixan eta pelota partiduetan ez zan beste urte batzuetan beste jente egon. Magia eta Markeliñeren DSO ikusten, barriz, jente ugari batu zan. Plazia beteta zagola amaittu ziran aurtengo Ferixa Nagusixak.



Gorputzeko kurbak erakutsizax desfilau zebeñ Elgetako miss-ak.



Guraso Elkartekuek emon zotsen hasieria aurtengo Ferixa Nagusixei.



Lehenengo aldiz umiek jotako danbor hotsa entzun giñuan danborradan.



Asto lasterketan Oskar izan zan lehenengua askondako.



Mariatxiak errondia egin zebeñ herriko kalietan.



Soka eta guzti urten ziran zezenera herriko kuadrillak.

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA**

Goibekokale

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

Jesus Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**

Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19

**KONPONKETAK
SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

TAPEM S.A

Trokela eta estanpazioa
**TROKEL PROGRESIBOETAN
ESPEZIALDUAK**

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 943 76 80 50 / 78 90 31
Faxa: 943 76 82 43

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26
ELGETA
Tel: 768190

ERRETRATU ZAHARRA

Jose Mari Agirrerri omenaldia

Uzarragan egin zioten omenaldia Jose Mari Agirrerri, 1965. urteko abuztuan. Uzarragako eskolan maisua izan zen urte askoan, eta horregatik zen, batik bat, ezaguna. Baina idazlea ere bazen Jose Mari Agirre, eta sakristau lanetan ibiltzen zen.

Jose Mari Agirrek urte luzez egindako lana eskertzeko egin zion Antzuolako herriak omenaldi hura. Badirudi, gainera, omenaldiaz gainera, Uzarragako iturri berria ere egun berean inauguratu zutela; *Uztapide* eta *Basarri* aritu ziren bertsoan omenaldian eta inaugurazioan.

Behean, ezkerretik eskumara: Maria Piedad Manzisidor, Resu Pérez, Rosarito Alkorta, Arrate Valverde eta Pilar Lizarralde.

Bigarren ilaran, ezkerretik eskumara: Pantxike Arin, Itziar Agirre, Itziar Manzisidor.

Hirugarren ilaran: Maria Jesus Arbulu, Jose Mari Agirre, Kontxi Elortza eta Begoña Lete.

Laugarren ilaran, ezkerretik



eskumara: Maria Pilar Aranguren, Mari Karmen Larrañaga eta Nati Niño (hirurak dantzari jantzita).

Eta azkeneko ilaran, ezkerretik hasita: Begoña Garitano, Pilar Garmendia eta Arantxa Garmendia.

Argazkia: Purita Zabalo

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Oinezkoen tokian, orain automobilak

Joan den asteburuan ospatu zituzten Kalebarrengo jaiak. Hori aitzakia hartuta, garai bateko Kalebarrengo irudi bat ekarri dizuegu oraingo astean. Kalebarren bezala ez ezik, Barrenkale bezala ere ezagutu zen garai baten kale hori.

Nahiko aldatuta dagoela ikus dezakegu honako argazki hauei esker; besteak beste, etxeak eraiki dituztelako.



1915

Ezkerreko aldean San Bartolome basiliza ikus daiteke eta aurrean, berriz, parrokiako kanpandorre zaharra.



2002

San Bartolome ermitaren tokian kanpaia besterik ez dago gaur egun. Eskumako aldean, berriz, etxebizitzak egin dituzte.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

CLINICA DENTAL BERGARA

Odontologia helduendako eta umeendako
Hortz-protesia
Estetika eta zuritzea
Implanteak eta kirurgia
Umeendako tratamendua, prebentzioa eta ortodontzia

Aseguruak: Ipresa, Sanitas, Asisa, DKV/Previasa, Aegón, Guía Azul de Guipúzcoa eta Dentyred.

Bidekurutzeta 6, 2. pisua. Bergara. 943 76 05 77


DESKONTU BEREZIAK
zaharren etxeak, ezgaituak eta enpresak

Ile apaindegira baino
lehenago heltzen gara.

Ibarreko BERRIAK
gertu-gertutik egunero.

BERRIAK

- Astelehenetik egubakoitzera 14:00etan et 20:00etan
- Errepikapena egunero, 15:30ean eta 21:30ean



% 20 • % 30



**San Pedro kalea 14.
Tf.: 943 76 07 55**



TAILA HANDIAK
54ra arte

PRAKAK
18.03 eurotik aurrera (3.000 pta.)

KAMISETAK
15,87 eurotik aurrera (2.640 pta.)



Guipuzcoana Euro Express: Nazio eta Europa mailako paketeria garraioa

San Juan Erreka z/g Elgeta bidea. Bergara - Tel. 943 763 642 - Faxe 943 765 425

